



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

7/ 2020 INSTRUKZIOA (TLB-5/ E-6/ ETKZ-5)

GAIA: Autoeskolta erregimenean eta 3 multzora arteko konboian zirkulatzeko baimendutako ibilbideak.

5/2018 Instrukzioaren VI. Eranskinak ezartzen du autoeskolta erregimenean zirkulatu ahal izango dela, polizia-eskoltaren ordezeko laguntzaile gisa, betiere ibilbidea Trafiko Zuzendaritzak baimendu badu eta Zuzendaritzaren webgunean (www.trafikoa.eus) argitaratuta badago.

Aurrekoarekin bat etorritik, hiru ibilbide berri baimentzen dira autoeskolta erregimeneko garraio berezien zirkulaziorako, eta onartzen dira, halaber, laguntza-erregimen horretan abiatzeko ordenan dauden 3 multzora arteko konboien zirkulaziorako. Aipatutako ibilbideak webgunean argitaratuko dira.

Laguntza-erregimen hau aplikatuko zaie instrukzio honek ondorioak dituen egunetik aurrera emango diren Zirkulazioko Baimen Osagarriei, bai eta egun horretan indarrean daudenei ere.

Garraio bereziko erregimenean dauden eta autoeskolta duten ibilgailuak zirkulatzeko, eta laguntza-mota hori duten 3 multzora arteko konboiak zirkulatzeko baimendutako hiru ibilbide berriak, 2019ko maiatzaren 27tik baimendutakoari gehituko zaizkio.

Beraz, honako hauek dira autoeskoltarekin zirkulatzeko baimendutako ibilbideak:

1.- SANTURTZIKO PORTUA - EGINO eta kontrako noranzkoa:

Santurtziko portua - N-644 - A-8 - AP-68- N-622 - A-1 – EginO

2.- RIVABELLOSA – EGINO eta kontrako noranzkoa:

Rivabellosa - A-1 – EginO

3. ARMIÑÓN - EGINO eta kontrako noranzkoa:

Armiñón - A-1 – EginO

4. EL HAYA (Kantabriako muga) - SANTURTZIKO PORTUA eta kontrako noranzkoa:

A-8 El Haya - N-644 – Santurtziko Portua



Nahi izanez gero, J0D0Z-T24SD-HH31 bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T24SD-HH31 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 87 44 - Fax 945 01 87 50

Instrukzio honek 2020ko ekainaren 22tik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz,

Trafikoko zuzendariak elektronikoki sinatua
Sonia DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA